

FARMAZIA FAKULTATEKO INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUTEGIA

1. artikulua - Helburua

Arautegi honen helburua da Farmazia Fakultateko instalazio komuneren erabilera arautzea, aretoen aprobetxamendu egokia bermatu eta haien higie eta segurtasun baldintzak ziurtatzeko. Gainera, eskaera egiteko izapidetze prozedura ezartzen du, fakultatean unibertsitateko edo unibertsitatetik kanpoko jarduera bat egin nahi duten unibertsitateko kideek eta UPV/EHUtik kanpoko agenteek kontuan hartu beharrekoa.

2. artikulua - Farmazia Fakultateko instalazio komunak

Honako hauek dira:

- Ikasgelak
- Erabilera anitzeko laborategiak eta mikroskopia laborategiak
- Ordenagailu gelak
- Elikadura Planta
- Batzar Aretoa
- Gradu Aretoa
- Ekitaldi Aretoa
- Ekitaldi Areto ondoko gela

3. artikulua - Jarduera motak

Farmazia Fakultateko instalazioak hainbat jardueratarako erabil daitezke:

- Graduoko jarduera akademikoak
- Graduondoko jarduera akademikoak
- Ikerketarekin loturiko jarduerak
- Beste unibertsitate jarduera batzuk
- Unibertsitatetik kanpoko jarduerak

4. artikulua - Eskatzaileen profilak

Farmazia Fakultateko instalazioak erabiltzeko baimena eska dezakete:

- Fakultateko dekanotza taldeak
- Fakultateko irakasle-ikertzaileek, AZPko langileek eta Ikasleen Kontseiluak
- UPV/EHUko beste ikastegi batzuetako aurreko puntuko taldeak
- Fakultatearen kolaboratzaileak diren kanpoko agenteek
- Beste kanpoko agente batzuk

5. artikulua - Eskaerak baloratzeko irizpideak

Farmazia Fakultateko dekanotza taldeak, arautegi honen arabera, ahal diskrezionala eta eskaera baiesteko askatasuna izango ditu eskaerei dagokienez. Eskaera batzuek lehentasuna izango dute, irizpide hauen arabera:

- Jarduera mota, 3. artikuluan zerrendatzen diren jardueren ordenaren arabera.
- Eskatzailearen profila, 4. artikuluan zerrendatzen diren eskatzaileen ordenaren arabera.

6. artikulua - Ikasgelak, erabilera anitzeko laborategiak, mikroskopia laborategiak eta ordenagailu gelak eskatzeko prozedura

Ikasturte bakoitza amaitu aurretik, Fakultateko Batzarrak onartu egingo ditu hurrengo ikasturteari dagozkion irakaskuntza modalitateen ordutegiak. Akademia Antolakuntzako dekanordea arduratuko da ordutegiak egiteaz, eta ikasgelen eta laborategien erabilerak ezarriko ditu.

Artikulu honek aipatzen dituen instalazioen erabilera eskatu ahal izango da libre gelditu diren ordutegietarako. Horretarako, eskaera arrazoitua bidaliko zaio ikastegiko administrazioari, posta elektronikoz, 24 ordu lehenago gutxienez. Eskatzaileak erantzun mezua jasoko du, ahalik eta lasterren, eta eskaera onartu zaion ala ez adieraziko zaio (bigarren kasuan, eskaera atzera botatzeko arrazoiak jakinaraziko zaizkio).

Fakultateko irakasle-ikertzaileek, eskaera egin aurretik, aretoak libre dauden egiaztatuko dute, WebUntis aplikazioaren bidez.

1. Ikasgeletako armairuen giltzak Fakultateko Ikus-entzunezkoen Zerbitzuari eskatuko zaizkio (debekatuta dago giltzen kopiak egitea). Gainera, jardueretan armairuan gordetako materiala erabiltzen denean, materiala gorde eta armairua itxita utziko da saioa bukatzean.
2. Erabilera anitzeko laborategiak eta mikroskopia laborategiak esleitzeko orduan, eskaera batzuek lehentasuna izango dute, ordena honetan:
 - Praktiketarako laborategirik ez duten Sailak/Arloak.
 - Praktiketarako laborategiak dituzten Sailak/Arloak, laborategiak beste jarduera akademiko batzuek okupatuta daudenean.Lehentasun bera duten bi eskaera egun bererako egiten direnean, lehentasuna izango dute nahitaezko irakasgaiei loturiko jarduerak, hautazkoei loturikoen aurretik. Beharrezkoa izanez gero, jardueran parte hartuko duen ikasle kopurua izango da azkenean lehentasuna ezarriko duena.
3. Ahaleginak egingo dira ordenagailu praktiketako saio guztiak Fakultatean egiteko; dena dela, beharrezkoa balitz, Elurreta eraikineko informatika geletan egingo lirateke. Data jakin batekin arazoa sortzen denean, irizpide hauek hartuko dira kontuan fakultatean egingo diren praktika saioen lehentasuna ezartzeko:
 - Fakultatean nagusiki egingo den saio multzo baten barnean dauden praktikak.
 - Praktika taldeko ikasle kopurua fakultateko instalazioen edukierara egokitzea.

7. artikulua - Elikadura planta

Instalazio honen irakaskuntza jarduera Akademia Antolakuntzako dekanordeak programatuko badu ere, instalazioaren ezaugarri bereziak direla-eta, batzorde bat arduratuko da haren funtzionamendu egokiaz.

Batzorde horretako kideak izango dira:

- Elikagaien Teknologia arloko bi ordezkari
- Nutrizioa eta Bromatologia arloko ordezkari bat
Hiru ordezkariak Farmazia eta Elikagaien Teknologia sailak proposatuko ditu
- Akademia Antolakuntzako dekanordea
- Fakultateko administraria

Batzordearen eginkizunak izango dira:

1. Hurrengo ikasturtean egingo diren praktikei buruzko informazioa eskatzea tituluaren irakasleei, erabili nahi den tresneriari buruzko xehetasunak barne (data bat adostuko da informazioa garaiz jasotzeko).
2. Mantentzea eta garbiketa aurreikustea.
3. Ekipamendu eskaerak planifikatzea (ekipamendu berria, edo zaharritutakoa edota matxuratutakoa berritzea).
4. Ikerketa erabilera koordinatzea, beharrezkoa izanez gero.
5. Bere kideen artean koordinatzaile bat izendatzea.

Koordinatzaileak funtzio hauek izango ditu:

1. Batzordearen bileretara deitzea.
2. Bileren aztergaien zerrenda osatzea.
3. Elikadura Plantaren erabileran eragin dezaketen gorabeherak jasotzea eta batzordeari horien berri ematea.

Elikadura Planta, haren instalazioak eta ekipoak ikerketa jardueretarako erabiltzeko eskaerak zuzenean egingo zaizkio batzordeko koordinatzaileari, eskabide arrazoitu baten bidez, posta elektronikoz, 15 egun lehenago gutxienez. Eskatzaileak erantzun mezua jasoko du, astebeteko epean gehienez, eta eskaera onartu zaion ala ez adieraziko zaio (bigarren kasuan, eskaera atzera botatzeko arrazoiak jakinaraziko zaizkio).

8. artikulua - Batzar Aretoa, Gradu Aretoa, Ekitaldi Aretoa eta azken horri erantsitako gela Areto hauek, oro har, konferentziak, batzarrak, tesi aurkezpenak, oposizioak, jardunaldiak eta bilerak egiteko erabiliko dira.

Areto hauek erabiltzeko eskaerak ikastegiko administraziora bideratuko dira, I. eranskinetako inprimakia betez eta posta elektronikoz bidaliz, hiru hilabete lehenago gehienez. Eskatzaileak erantzun mezua jasoko du, astebeteko epean gehienez, eta eskaera onartu zaion ala ez adieraziko zaio (bigarren kasuan, eskaera atzera botatzeko arrazoiak jakinaraziko zaizkio).

Batzarrak, konferentziak eta jardunaldiak egiteko, hiru egun oso baino gehiagorako edota hiru hilabeteko aurrerapenarekin baino gehiagorekin erreserbatu ahal izango da instalazio berbera, Dekanotza Taldearen baimenaz.

Zerbitzua hobetzeko eta baliabideak hobeto aprobetxatzeko, mugatu egingo da instalazio hauen saiakuntzetarako erreserba: bi ordu egunean.

Dekanotza Taldeak bere gain hartzen du erreserbetan aldaketak egiteko eskubidea, baldin eta horretarako arrazoirik ikusten badu.

9. artikulua - Eskaera bertan behera uztea eta ez-betetzeak

Areto bat erreserbatu duen pertsonak erreserba bertan behera uztea eskatu ahal izango du. Horretarako, erreserba egiteko erabili duen bide berbera erabiliko du, ahal bezain laster. Aurrez erreserbatutako instalazio bat arrazoitu gabe erabili gabe uzten denean bertan behera uzteko eskaera egin gabe, pertsona horren hurrengo eskaerak lehentasun apalena izango du.

10. artikulua - Erabilera tarifak

UPV/EHUren arauen arabera, unibertsitatetik kanpoko eskatzaileek unean-unean indarrean dauden prezio publikoak ordainduko dituzte instalazioak erabiltzeagatik.

I ERANSKINA. INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ESKAERA ORRIA

IZEN-ABIZENAK:	
NAN:	
E-MAIL:	
TELEFONOA:	

Bete dagokizun zutabea, UPV/EHUko kide zaren ala ez kontuan izanik:

UPV/EHUko KIDEA <input type="checkbox"/>		UPV/EHUtik KANPOKO KIDEA <input type="checkbox"/>	
Taldea:		Entitate juridikoaren izena:	
Ir./Ik.: <input type="checkbox"/> AZP: <input type="checkbox"/> Ikasleen kontseilua: <input type="checkbox"/>		IFK:	
Ikastegia/entitatea:		Helbidea:	
Saila:			

Jarduera mota: Akademikoa Gradukoa Akademikoa Graduondokoa Ikerketa
Beste unibertsitate jarduera bat Unibertsitatetik kanpokoak

Informazio gehiago erantsi dezakezu: programa, antolakuntza xehetasunak...

DATA:	ORDUTEGIA:	
PARTE-HARTZAILE kopurua:		
ESKATUTAKO ARETOA:		
BESTE BEHAR BATZUK:		
JARDUERAREN DESKRIBAPENA:		
OHARRAK		

Gasteizen, 201...(e)koren (e)(a)n

Eskatzailearen sinadura: _____

UPV/EHUK bete beharrekoa:		
Onartua <input type="checkbox"/>	Ez onartua <input type="checkbox"/>	Data: